BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

4944

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 21ekoa, Energia eta Meategien zuzendariarena, Lemoako udalerrian zirkuitu bikoitzeko 132 kV-ko aireko linea elektrikoa (Basauri-Abadiño linearen «Cementos Lemona» azpiestaziorako deribazioa) ezartzeko baimena ematen duena.

Erref: L-7.266 ASS/SM.

Esp: AT-H-2009/75.

GERTAKARIAK

1.– 2010eko abuztuaren 10ean, Lemona Industrial SA enpresak, helbidea Lemoan duenak, Lemoako udalerrian zirkuitu bikoitzeko 132 kV-ko aireko linea elektrikoa (Basauri-Abadiño linearen «Cementos Lemona» azpiestaziorako deribazioa) egikaritzeko proiektu-onarpena, ingurumen-inpaktuko deklarazioa eta administrazio-baimena eskatu zituen, horretarako eskaera aurkeztuz, Oscar Escusa Villalba industria-ingeniariak sinatutako eta Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialak 2009-08-3an ikus-onetsitako 3176. proiektu teknikoarekin eta ingurumen-inpaktuko azterlanarekin batera.

2.– Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuaren 10. artikuluan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan eta ingurumen-inpaktuko ebaluazioari buruzko gainerako legerian aurreikusitako xedeetarako, iragarki bat argitaratu zen, eta horren bitartez, Lemona Industrial SAren eskaera hori jendaurrean jarri zen, 2009-09-2ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta 2009-08-12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz.

3.– 2010eko irailaren 29an, Ingurumen Sailburuordetzak proiektu horren ingurumen-inpaktuko deklarazioa eman zuen.

4.– 2009ko abuztuaren 12an, Lemoako Udalari eta Ur Agentziari ofizioa igorri zitzaien, txostena, eta, hala bazegokion, egokitzat jotzen zituzten baldintza teknikoak eskatzeko, berariazko legeria elektrikoaren esparruan, Lurralde Ordezkaritza honetan aurkeztu ondoren eskatzaileak aintzat hartu dituenak.

OINARRI JURIDIKOAK

Espedientea egiterakoan, honako hauetan araututako izapideak bete dira: Sektore Elektrikoaren azaroaren 27ko 54/1997 Legea, abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua, energia elektrikoko instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituena, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 3ko 282/2002 Dekretua, eta horiekin bat datozen gainerako legeak.

Energia eta Meategien zuzendariak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan (2009ko irailaren 24ko EHAA) esleitu zaizkion eskumenei jarraikiz, honako hau.

EBATZI DU:

Lemona Industrial SAri Lemoako udalerrian zirkuitu bikoitzeko 132 kV-ko aireko linea elektrikoa (Basauri-Abadiño linearen «Cementos Lemona» azpiestaziorako deribazioa) egikaritzeko proiektua onartzeko baimena ematea. Honako hauek dira proiektuaren ezaugarri nagusiak:

Aireko linea elektrikoa, zirkuitu bikoitzekoa.

Zerbitzu-tentsioa: 132 kV.

Eroale aktiboak: 6, aluminio-altzairuzkoak, LA-180 motakoak.

Babes-eroaleak: OPGW motakoak.

Euskarriak: metalezkoak, saretadunak.

Luzera: 698,88 m.

Hasiera: Iberdrolaren «Basauri-Abadiño» linearen 73. dorrearen ondoan ezarri beharreko euskarria.

Amaiera: «Cementos Lemona» azpiestazioa izango dena.

Zirkuitu bakoitzak garraiatu beharreko gehieneko potentzia: 20 MW.

Ebazpen hau abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan xedatutakoaren arabera eta honako baldintza orokor hauekin eman da:

1.– Obrak onartutako proiektuari jarraikiz egin beharko dira, kasu bakoitzean eskatzen eta baimentzen diren aldaketekin.

2.– Proiektua abian jartzeko bi urteko epea izango da, ebazpen honetatik aurrera zenbatzen hasita.

3.– Obrak amaitzean, instalazioen titularrak Bizkaiko Lurralde Bulegoari obren bukaeraren berri emango dio, behin betiko onarpena eta martxan jartzeko akta egin ditzan.

4.– Obrak egiteko beharrezkoak diren udal- eta probintzia-eskumeneko eta bestelako baimenak edo lizentziak edozein direla ere eta horiek aparte utzi gabe ematen da ebazpen hau; izan ere, eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe emango da, jabetza-eskubidea salbu utzita.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta haren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke Industria eta Energiako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 21a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
JORGE JUAN LETAMENDIA BELZUNCE.